



SUA

SUA

SUA



HOTZ HANDIA EGITEN DU, ETA MENDIA ELURREZ
ESTALTZEN HASIA DA. MARIK ETA SUGAARREK
HAIEN BIZKARRETAN ERAMATEN DITUZTE ATARRABI
ETA MIKELATS. OTSO HAIEN ONDOAN DOA. NEGUKO
KOBAZULORA ITZULTZEN ARI DIRA.



MIKELATS ETA ATARRABI ENBORRAK
BILAZERA ABIATU DIRA SUGAARREKIN;
MARI, ALDIZ, OTSOREKIN JOAN DA
ELIKAGAIAK BILTZERA.





MIKELATS ETA ATARRABI EGURREN INGURUAN ESERITA
DAUDE. SUGAARREK AHOA IREKI BESTERIK EZ DU
EGIN BEHAR GARRAK BERE BARNETIK ATERATZEKO.
SUGAARREN BARRUAN SUA BIZI DA.

BIZIRIK IRAUTEKO. SUAK BEROA EMATEN DIE, KOBAZULOKO ILUNTASUNA ARGITZEN DU ETA ELIKAGAIAK KOZINATZEKO ERABILTZEN DUTE.



SUKALDATU



BEROTU



**LAN TRESNAK
HOBETU**



BABESTU



SOZIALIZATU

Sua zertarako da?



SUAREN GAR LARANJA
LUZEEN BIDEZ, ELKAR IKUSI ETA
BEREN GORPUTZAK BEROTZEN DITUZTE.
SUGAARREK ETA MARIK BEHIN ETA
BERRIRO AIPATZEN DUTE NATURA OSO
EDERRA DELA, BAINA USTE DUTE EZ
DELA BEHAR BEZALA ZAINTZEN
ETA KEZKATUTA DAUDE
HORREGATIK.

URTEAK PASATA, MIKELATSEK ETA ATARRABIK
ZUHAITZ BATEN AZPIAN GOGORATZEN ZITUZTEN
SUGAARREK KONTATU ZIZKIEN ISTORIOAK.
ATARRABIA OSO ALDATUTA ZEGOEN.

—SUGAARREK ARRAZOI ZUEN —ESAN ZUEN
ATARRABIK—. EZ DUGU JAKIN LURRA ZAINTZEN.
BERO HONEK DENA SUNTSITUKO DU. BEGIRA
EGUZKIAREN AURPEGIARI —ESKATU ZION
MIKELATSI— TRISTE DAGO ETA KEZKATUTA
DIRUDI.

*Zergatik uste duzu
Ekhi triste dagoela?*





HILABETEA ZIREN ATARRABIAN KISKALTZEKO
MODUKO BEROA EGITEN ZUELA. ZUHAIKAK ETA
LOREAK LEHORTU EGIN ZIREN. IBATAK OSO UR
GUTXI ZERAMAN, ETA ARRAINEI IA EZ ZITZAIEN
LEKURIK GERATZEN IGERI EGITEKO. EZINEZKOA ZEN
BERO ITOGARRI HAREKIN LAN EGITEA. ATARRABIAK
JENDERIK GABEKO HERRIA ZIRUDIEN.

– EGUZKIAREKIN HITZ EGIN BEHARKO GENUKE.



BI ANAIAK EZKABATXIKIRA IGO ZIREN. HARKAITZIK
ALTUENEAN ESERI ETA BESOEKIN KEINUAK EGIN
ZITUZTEN EGUZKIAREN ARRETA ERAKARTZEKO.

— ZER NAHI DUZUE? — GALDETU ZIEN IZAR ARGITSUAK
AHOTS GOIBELEZ.

— JAKIN NAHI DUGU ZERGATIK ZAUDEN HORREN BAKARRIK.
ASPALDIAN HODEIEK EZ DUTE URİK BOTA ATARRABIAN. HORRELA
JARRAITUZ GERO, BERO HONEK DENOK HILKO GAITU —ESAN
ZUEN ATARRABIK.





Nola zaindu
ditzakegu lurra,
airea eta ura?


— ZUEK DUZUE ERRUA! —ERANTZUN ZUEN EGUZKIAK SUMINDUTA—.
JARRAITZEN DUZUE ZAINDU GABE AIREA, ZAINDU GABE URA
ETA ZAINDU GABE LURRA ... PLANETA BEROTZEN ARI DA, ETA
TEMPERATURA ALTUEK HODEIAK DESEGITEN DITUZTE. BAKARRIK UTZI
NAUZUE.

ANAIK TRISTURAZ BEGIRATU ZIOTEN ELKARRI. BAZEKITEN EGUZKIAK
ARRAZOI ZUELA.

—BARKATU —XUXURLATU ZUEN MIKELATSEK LOTSATURIK—.

UNE HARTAN, EGUZKIARI SUZKO MALKO
BATEK IRRIST EGIN ZION BERE AURPEGI
BOROBILETIK. MALKOA EZKABATXIKI
MENDIKO BELAR LEHORREAN ERORI ETA
SUTEA PIZTU ZEN. BI ANAIAK GARREN
ARTEAN GERATU ZIREN EZIN ATERA, ETA
EUREN ARROPEKIN ITZALTZEN SAIATU
ZIREN.





SUZKO ZUTABE HANDIAK IKUSITA, HERRITARRAK IZUTU
EGIN ZIREN. BATZUK MENDIRANTZ KORRIKA JOAN
ZIREN SUTEA GELDITZEN SAIAITZEKO. BESTE
BATZUK, ORDEA, BEREN ETXEETARANTZ
ABIATU ZIREN GARREK SORTZEN ZUTEN
BEROTIK IHESI. BAT-BATEAN, ZERUA
ILUNDU EGIN ZEN.

— SUGAAR! — OIHUKATU ZUTEN
BIZILAGUNEK IZUTUTA.

SUGAAR ZIZTU BIZIAN LURRERATU ZEN MENDIAN.
BERE BUZTAN LUZEAREKIN MIKELATSEN ETA
ATARRABIREN INGURUAN ZEUDEN GARRAK KOLPATZEN
HASI ZEN, ETA HAIENGANA IRISTEKO BIDEA GARBITU
ZUEN. ORDUAN BI ANAIAK SUGAARREN GAINEAN IGO
ZIREN, ETA GARREN ETA HERRIAREN GAINETIK HEGAN
EGIN ZUTEN. SUGAAR IBAIERTZERAINO JAITSI ZEN,
ETA MIKELATS ETA ATARRABI URETAN FRESKATZEN
UTZI ZITUEN.





JARRAIAN EZKABATXIKIRA ITZULI ZEN SUAREN AURKA
BORROKATZERA. SUTEAK INDARRA HARTU ZUEN, ETA
ZENBAIT ZUHAITZ ERORI ZIREN SUGAARREN GAINERA. LEHER EGINDA
ETA LARRI ZAURITUTA, MARIREN IZENA OIHUKATU ZUEN.



MARI BEREHALA AGERTU ZEN. IRRINTZI LUZE ETA
OZEN BAT BOTA ZUEN, ETA HODEI HANDI BATZUK
KONBENTZITZEA LORTU ZUEN LAGUNTZERA ETORTZEKO.
HODEIEK ATARRABIA ETA EZKABATXIKIREN GAINEAN
HUSTU ZITUZTEN BEREN BARRENAK.





SUA MENDERATUTA, MARI SUGAARRI LAGUNTZERA JOAN ZEN. AZALEAN ZAURI SAKONAK ZITUEN. MARIK SENDABELARRAK EZAGUTZEN ZITUEN, ETA BAZEKIEN NOLA ERABILI. MIKELATSEK ETA ATARRABIK ERE SUGAAR ZAINTZEN LAGUNDU ZUTEN.

Nola senda
ditzazkegu erreduren
zauriak?

Nola lagundu dezakegu mendia sute batetik berrreskuratzen??

SUGAARREK ETA MARIK SUTEAREN AURKA EGIN ZUTENA ESKERTZEKO, ATARRABIAKO BIZILAGUNEK FESTA HANDI BAT EGITEA ERABAKI ZUTEN. BAINA FESTA ANTOLATZEAZ GAIN, EZKABATXIKI MENDIA INDARBERRITZEKO LAN EGITEA ADOSTU ZUTEN.

GOIZ HARTAN, ATARRABIAKO PLAZAN HERRIKO BIZTANLE GUZTIAK ELKARTU ZIREN. ARTALDE HANDI BAT ERE ZAIN ZEGOEN, ETA GIDARI LANETAN, PINTTO TXAKURRA.



SUTE GEHIAGORIK EZ PIZTEKO MENDIA GARBITZEA ERABAKI ZUTEN. BIZILAGUNEK HAZIAK ETA LANDAREAK ERAMAN ZITUZTEN ERRETAKO EREMUAN SASI, ZUHAIKKA ETA ARBOLA BERRIAK HAZTEKO.

IDIAK ETA ASTOAK ERE LANEAN HASI ZIREN, ETA ERRETAKO ENBORRAK BASOTIK KENDU ZITUZTEN. EZKABATXIKIK KOLORE ILUNA ZUEN, IA BELTZA. ORDUAN JAKIN ZUTEN URTEAK PASA BEHARKO ZIRELA MENDIAK BERE KOLORE BERDEA BERRESKURATZEKO.



KOLORETAKO BANDERATXOAK ZUHAITZETATIK ZINTZILIK ZEUDEN FESTA
HANDIRAKO PLAZA APAINTZEN. ATARRABI ARDURATU ZEN JANARIA PRESTATZEAZ
ETA BEHAR ZUTEN EDARIA FRESKO EDUKITZEAZ. MIKELATSEK EGUNAK
ZERAMATZAN KOLORE EZBERDINETAKO JANTZIAK PRESTATZEN
FESTARA JOANEN ZIREN GUZTIENTZAT.

ATARRABIAKO GIROA BARREZ ETA MUSIKAZ BETE ZEN. MARIK
IRRINTZI LUZE BATEKIN ADIERAZI ZUEN BERE POZA. SUGAARREK
SENDATUTA ZITUEN ZAURIAK, ETA ZERURAINO IGOZ AKROBAZIA
EDERRAK EGIN ZITUEN SUZKO ILARGI ERDI BIHURTUTA.



Ezkabatxiki mendia oso ahula da suaren aurrean



Aspaldi, gizakiok harreman hobea genuen mendi eta basoekin. Ezkabatxikin eta gainerako mendietan arboletatik egurra ateratzen genuen, eta adar lehorrak biltzen genituen etxeak berotzeko. Abereak elikatu eta ura edateko guneak zeuden. Ondorioz, landare eta sasiak ez zuten mendia ixten.

Klima aldatzen ari da. Gero eta gehiagotan jasan behar izaten ditugu beroaldiak eta lehortzak, eta, ondorioz, mendiak lehorrago daude.

Mendian zabor asko topa dezakegu, eta tartean, kristalak. Kristalek lupa efektu deitzen dena eragin dezakete. Efektu horrek txinpartak sortzen ahal ditu. Gainera, suak egiten dira baimenik eskatu gabe, eta debekatuta dagoen garaian.

Ezinbestekoa da Ezkabatxiki babestea suterik ez izateko.

Mendiarentzat oso mesedegarria da hildako egurrak, eta landare eta sasi asko egotea animaliek gordelekuak eta jatekoa izan dezaten, baina neurrian. Asko baldin badaude, eta lehortzen badira, udan arriskutsuak izan daitezke. Sute bat pizten bada, kalteak handiak izaten ahal dira.

Hori ez gertatzeko, eremu irekiak eta abereentzako larreak prestatu daitezke. Atarrabian adibide eder bat dugu, gure ardi suhiltzaileak.

Ur puntuak ere sortu ditzakegu eta mendia freskatu bero handia egiten badu.

Eta guk geuk ere asko egin dezakegu. Mendira goazenean ez dugu zaborrik utzi behar, eta ikusten baduzu, zurea ez bada ere, eraman ezazu!

Eta ez ahaztu, ez egin surik edo txinpartarik baimenik gabe, eta are gutxiago bero egiten.

Izenburua: Ura.

Idazlea: Amaia Oloriz Rivas.

Marrazkiak: Joana Akaiturri Etxebarria.

Diseinua: Joana Akaiturri Etxebarria.

Lehen Hezkuntzako ipuinen egokitze pedagogikoa: Saioa Martinez de Lizarrondo Oria eta Irune Iturbide Oloriz.

Ingurumenari buruzko edukia: Itziar Almarcegui, biologoa.
itziar.almarcegui@gmail.com.

Editorea: Etxebeltza Elkartea.

Inprimatzailea: Imprenta Zubillaga.

Sustatzailea: Etxebeltza Elkartea.

Laguntzaileak: Atarrabiako Udala.



Lehen edizioa: 2025eko otsaila.

Lizentzia: Creative Commons. Aitortu-Ez-komertziala-PartekatuBerdin 2.5 Generikoa (CC BY-NC-SA 2.5). Lan hau librea da kopianu, zabaldu, erakutsi eta beste obra deribatuak egiteko honako baldintza hauetan: Edukien iturriak aipatzera derrigortzen du; edukiakin irabazi ekonomikorik ez lortzea derrigortzen du; edukien jatorrizko lizentzia berdinarekin erabiltzea derrigortzen du.



Lege gordailua: DL NA 264-2025

ISBN: 978-84-09-69376-4

Gaztelarazko bertsioa:

Versión en castellano:



etxebeltza.eus